

AEK eta EAJren arteko akordioa

Euskal kulturaren bilakabiderako garrantzia ikusgarria izan dezakeen akordio baten aitean gaude. AEK-k eta EAJk akordio bat izenpetuko dute egun gutxi barru. Filtratut diren berrien arabera, hitzarmenaren erredakzioa oso aurreratua dago. Prozedura mailako baldintzek atzeratu dute gertakaria. Guk, be-

rriri buruzko iritziak jaso nahiz euskaltzale zenbaitengan ja dugu, euskalgintzan duten kualifikazioa kontutan izanik, argi pitin bat egin dezaketelakoan. Akordioaren xehetasun guztiak izkutuak izanik, ez dute izan gaiari zehatz heltzeko aukerarik. Dena den, ikuspuntuok badute baliorik gertakari historikoa alde-

urretik zein positiboa izan daitekeen juzkatzeo. Paulo Agirrebaltzategi, UZEIko partaidea; Ander Manterola Labayrukoa eta Imanol Laspiur, AEKren hastapenetako langilea eta euskaltzain urgazlea ditugu solaskide telefonoz buruturiko muestreo inprobisatu baina pausatuta honetan

AEKk aurrera segitu behar du

AZKEN urte hauetan nik ez diat AEKrekin zerikusirik, bertan parte hartzen ez dudalako. Lehen guk gau eskolak ematen genituenaren aritu izan gaituk han eta hemen, gaur eta bihar, euskara irakasten eta ikusi deneran diagu Euskal Herriaren ibilbide honetan izugarritzko lana egin dugula, nahiz eta sarri nahi izan dugun fruiturik ikusi ez esku tartean. Baina AEK sortu zenean eta guk horren lotura egin genianen, hain zuzen gure ogibideko lan profesionalagatik utzi behar izan genian, zeren nik ordutik honera nik beti AEK begi onez ikusi dut. AEKk, dudarik ez, lan izugarri bat egiten ari dela denok zekiguk eta nik ez diat harrez gero, ez hanguz batzarretan ez hanguz estruk-

turan, irakasleagoan ezertan zerikusirik ez nagolako bertan, berarekin lotua. Dena dela, nik bazeuzkeat gaurko AEK bi araba irakasten hainbat urtetan ari direnak eta oraindik jotake ari direnak, eta horren problematika nolabait jarraitzen diat haien bitartez eta inoiz afari bat izaten dutenean, herri afari edo herri bazkari edo horrelakotan agertzen naug eta berakin solasean izaten naug. Dena dela, AEKren garrantzia izugarria duk gaur egun kontu izanik, Euskal Herriaren euskara, dudarik ere, gaur egun kinka larri batetan daukagula. Ni konbentzitua negok hogeitaz urte barru, hogeitaz bost, berrogei urte barru, Euskal Herriak bere soberania bat, bere jabeago bat izango duela edo nolabaiteko aginte bat izango

duela euskaldunok bertan jabe garelarik, baina bitarte horretan euskararekin zer gertatuko den duk hain zuzen duk nire kezka larria. Bitarte horretan, gaur oraindik ikusten diat euskara hiltzen gehiago ari dela, gehitzen eta indartzen baino. Horregatik, AEKk lehen lan ona egin ziaik eta orain ere lan izugarria egiten ari duk, gaizki ez baldin banago uste diat 35.000-40.000 ingurutako ikasle kopurua ibili izan dela eta hori benetan duk garrantzizkoa. Are gehiago kontu izanik AEK ez dela lparaldearekin daukagun muga tarte horrekin sakabaturia eta Euskal Herri osoa, orokorki, hartuz, ba nazionalki euskara irakasten ari dela. Ni sarri harritua gelditu naug, nola AEKko euskaldun berri bat topa

egin dudanean —eta batzutan urtebetean bakarrik ikasten aritua izan den batekin—, nolabaik euskera mintzaten moldatzen dela, edo gustora egon naug berarekin. Eta bizpahiru urte daraman ikusi diat, bere akatsak eta falloak eginaz, behintzat euskaraz pentsatzen hasia, euskara mintzaten ikusi diat eta AEK derrigorrezkoa dugula oraindik. derrigorrezkoa, herri mugimendu bat delako euskararen aldetik eta fruitu batzuta sortu dituelako, beraz, euskal gobernuarekin daramatzen harremanak ikusirik eta nolabaiteko akordio batetara helduz, eta batez ere, AEKk beti eta gaur sekula baino gehiago behar duen diru laguntza, lokal-laguntza eta alde guztietako instituzioen laguntza, derrigo-

rezko duela. Horregatik, AEK desagertzea izango litzateke bai euskal gobernuarentzat eta bai Euskal Herriaren historiaren ildo honetan, benetan negargarria.

Euskal Gobernuarentzat borron bat izango litzateke eta sektarismo baten ondorio bat, baldin eta HABE potentziazearren HABA bere zerbaiten gauza bitxi bat bakarrik kontsideratuz AEK arbuia eta baztertuko balu.

Imanol LASPIUR
(Euskaltzain urgazlea)

Onarpena zor zitzaien

EZ dut ezagutzen EAJK eta AEKk sinatuko duten hitzarmena. Edukinari buruz ezin ezer esan, beraz. AEK eta bere lana ondo ezagunak zaizkigula uste dut; eta ezagunak zaizkigun neurrian, bada, gogoeta batzuk egingo nituzke. Hau da, Euskal Herri euskaldunaz sinetsi eta helburu horretarako bere kementa ahalegin eta organizazioa jarri duela AEKk militantzian oinarrituta baina seriotasunez mamituta, nik uste.

Horretaz gainera, herri erakundea izan da eta da AEK, ikastolek euskal eskola nazionalaren bidea ireki zuten bezala, Euskal Herri osoa euskalduntzeko antolatua eta, ikastolek bezalaxe, onarpen eta ezagutza publikoa bilatzen duena.

Hirugarrenik, zera esango nuke oraindik AEKri buruz, AEK euskalduntze eta alfabetatzearen planteiamendu akademi-

zista eta profesional soila gaintzen saiatu dela, hori herri osoaren bidegintza eta herrigintza gisa ulertuz; hau da, alfabetatzea eta euskalduntzea eta kulturazko berpizkunde osoaren testuinguruan gauzatuz. Guzti horren adierazgarri dira AEKk antolatutako euskararen aldeko mobilizazioak, manifestazioak eta herri mailako beste ekintzak, guztiak trebetasun handiz antolatuak, ene aburuz (Korrika, jaialdia e.a.).

Laugarrenik, abiaburu eta helburu horiei begira, organizazioaren eta erresistentziaren erredutaz agertu zaigu AEK. Erresistentzia bai. Ez hori agian gogozkoa izaten delako —seguruenik ez—; baizik eta horretara behartuta gertatu delako.

Hitzarmenari berari buruzko gogoeta hauek egin ondoren, eta delako hitzarmen hori testuinguru honetan sartu behar delakoan, zera gaineratuko

nuke: azken hamar urte hauetan aurrera bideari eutsiz ibili ostean, AEKri urrats berriak egiteko unea iritsi zaiola, seguruenik; Komunitate Autonomoan, behintzat. Hainbat urtetan emanikako muzineriazko eta beireizeriazko traterara publikoaren erreparazio gisakoa edo erreparaziorako abiapuntua izan daitekeela uste dut.

Horri buruz esango nuke oraindik, euskararen berreskurapenerako erakunde herritarren eginkizun eta funtzio garrantzikoaren onarpena dela hitzarmen hori. Eta horien barruan garrantzi handienetakoa izan denaren ezagutza publikoa, AEKren ezagutza publikoa, alegia; herri indarren artean garrantzi handienetakoa izan baita. Alde horretatik, oso pozgarria deritot hitzarmenari.

Horretaz gain, bide berriren baten irekitzea adierazten du, seguruenik, Administrazio pu-

blikoaren eta euskararen eta euskal kulturaren alorreko herri erakundearen arteko harremanetarako. Gogoan eduki behar da, EAJK bere eskuetan eduki duela azken hamar urteotan Administrazio publikoaren euskararen politikarako ardurarik nagusia Komunitate Autonomoan.

Hitzarmena euskararen berreskurapenerako eta euskal kulturaren birpizkunde politikaren dinamika berriren baten adierazgarri baldin bada, aurrera itxaropen haundiagoz begiratzeko eskubidea izan genezake, agian.

Paulo
AGIRREBALTZATEGI
(UZEI)

Gure kasua desberdina da

NIK ez ditut ezagutzen AEK eta EAJren arteko akordioaren xehetasunak eta ez dut iritzi osaturik, baina kanpotik begiraturata poztu egin naizela esan dezaket, euskararen alde lanean ari garen indarrak batzeko bide bat izan daitekeelako eta ahailegin horiek batzeko premian bait gaude.

AEK-k lan asko egin du eta zor zailo erakundearen babesa eta are gehiago gure kasuan erakunde publikoaren babesa. AEK-k inor baino lan gehiago egin du edo gutxienez inor baino lehenago hasi zen lanean eta oso egoki eta bidezko ikusten dut orain Administrazioak babes

osoa ematea.

Nik badakit euskara ez dutela legeek salbatuko, baina legeen babesa behar du.

Gure kasua, Labayrukoena, desberdina da. Guk Bizkaira mugatzen dugu gure lana. Ez gara AEK bezala erakunde handi bat eta bizkaieraz euskalduntzen eta alfabetatzen digu. Hasiera batetan laguntasunik bat ere gabe aritu ginen lanean. Ondoren laguntzak jasotzen hasi ginen. Orain proiektuak eta asmoak aurkezten ditugu eta proiektu horien truke jasotzen ditugu laguntzak. Alderdi askotatik begiraturata AEKren arazo beretsuak ditugu, baina beste alde batzutatik be-

giraturata ezaugarri desberdinak ditugu. Egoera ondorioz ez da bera. Egia da laguntzak ez direla guk nahi bezalakoak, baina egoera desberdina denez, Administrazioarekiko harremanak ere desberdinak izan behar dute.

Oro har, beraz, nik erabat positibotzat ikusten du laster izenpetu daitekeen akordio hori.

Ander MANTEROLA
(LABAYRU)

